

AMETS BAT ERREALITERA

Txikitatik beldurrez beteta gaude, batzuk ilunpean egoteari, beste batzuk isiltasunari; baina, gehien sufritzen den beldurra, ohearen azpian norbait edo zerbait dagoela pentsatzea da. Nagusitzen zarenean txorrada bat ematen du, baina txikia zarenean gauza asko pasatzen zaizkizu burutik lotara zoazenean.

Ori da Norari gertatzen zitzaiena. Nora Bilbon bizi zen, bere ama, aita eta ahizparekin. 12 urte zituen, ez zen hain txikia, ezta? Baina Norak imajinazioa soberan zeukan.

Dena goiz batean hasi zen, Bilbon eguraldi txarra zegoen, eta Nora ez zen lagunekin irtengo. Logelan zegoen eskolan bidali zioten liburua irakurtzen, bere untxiarekin.

NORA:-Ezin dut sinetsi liburu aspergarri hauek irakurtzera behartu izatea; zuk dena askoz ere errazago daukazu, ezta, Bugs Bunny?

Untxitxo hartu eta laztantzen hasi zen. Bugs, Noraren mutil-lagunak oparitu zion bere urtebetetzean. Izena jarri zion txikitako idoloa Bugs Bunny zelako berarentzat, eta antza itzela zutelako. Nora azpertuta zegoen, eta ohean botata lo geratu zen Bugs ondoan zeukala. Bat-batean, ohetik jauzi bat eman zuen eta lurrera jausi zen, baina ez berak nahi zuelako, baizik eta oheak bota zuelako. Nora lurretik altxatu eta Bugs ondo zegoela ikusi ondoren, oheari begira geratu zen, atea itxi, eta Bugs lurrean utzita ohearen aurrean belaunikatu eta ohearen azpian begiratu zuen. Bugsek orduan salto egin zuen ohe azpira, eta Nora izututa bere atzetik arrastaka joan zen, jauzten hasi zen arte.

NORA:-Aaaaahhh!!! Bugsss!!!

(BOING)

Nora lur bigun baten gainean zegoen eta lurperatzen zegoela konturatu zen. Ahalegin guztiak egin ondoren konturatu zen arnastu ahal zuela eta lasaitu zenean gorantz egin zuen. Arraroa iruditu zitzaion bustita ez egotea.

Begira geratu zen bere ingurura, eta bi begi begira zituela konturatu zen. Buelta eman zuen. Izaki borobil bat zuen atzean. Morea zen eta bi antena borobil zituen goian. Norak ezin zion haren begiei begiratzeari utzi, eta borobilak BLUIP! esaten zuen etengabe.

NORA: -Oh! Zein izaki polita! Nola deitzen zara?

-BLUIP!

-Aaa... ez dut Bugs ikusi, badakizu non dagoen?

-BLUIP!

-Esaten dudana ulertzen duzu?

-BLU...

-Ez!, ez esan, badakit bakarrik bluiip esango duzula.

Biak hasi ziren Bugs-en bila. Nora kezkatuta zegoen, baina Bluiip oso gustura zegoen Norarekin eta bideko izaki desberdinekin: Hartz magoa, pertsona bat txapel arraro batekin eta zoro zegoena, urtxintxa hip-hop dantzaria, katu marraduna eta ikusezin egiten zena... Beraiekin egon ziren, abenturara, egun osoa.

Nora oso gustura zegoen, eta miresten zuen mundu paralelo hori, dena gozoa eta kolore bizidunak ziren. Ez zegoen zuhaitzik eta denak oso atseginak ziren. Arratsaldean jai txiki bat egin zuten, baina, azkenean, agurtzeko ordua heldu zen eta bihotzean eraman zuen arratsalde hori. Agertu zen lekura heldu zen eta lo geratu zen lurrean.

Begi bat zabaldu zuen eta konturatu zen bere logelan zegoela, bere ohe gainean, Bugs ondoan zuela. Norari saman korapiloa egin zitzaion eta malkoak begian zituela, arnasa sakon hartu eta Bugs besarkatu zuen. Orduan Bugsek esan zuenak bizitza aldatu zion.

BUGS: -BLUIP!

Nora begira geratu zitzaion azalpen logikoa bilatu nahirik. Ordutik aurrera Norak bazekien zer egingo zuen, eta ordenagailua hartu eta idazten hasi zen.

10 URTE GEROAGO

Norak bere lana bukatu zuen; literatura ikasketak jaso zituen bukatu zituenean. Berak eduki zuen ametsa gidoi bihurtu zuen, Bugs-ekin, beste munduarekin.

Hollywood-era joan zen bere ametsaren bila. Han gidoilari famatu batengana joan zen gidioia erakustera. Lan gogorra eginda pelikula sortu zuten biek. Baina Nora bueltatu behar zen eta William-i saldu zizkion egile eskubideak. William-ek oso pelikula ona egin zuen, eta Norak beti gogoan izan zuen bere bizitzako arratsalderik onena.

Pelikula:

ALICIA

MIRARIEN

MUNDUAN